




Monografikoak / Monográficos

5. alea / 2012



**Aztertu**  
Programa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA




**G**ure planetan bizi diren izaki bizidun handienak dira. Itsaso sakonak menperatzen dituzten odol beroko animaliak. Hauen indarra eta handitasunak gizakion hunkidura sortu du antzina antzinatik.

**S**on los seres vivos más grandes que habitan nuestro planeta. Animales de sangre caliente que dominan las profundidades del mar. Su fuerza y majestuosidad ha sobrecogido al ser humano desde tiempos inmemoriales.

## Itsasora bueltatu ziren ugaztunak...

Ozeanotik etorritako lehendabiziko izakiek lehorra konkistatu zutenetik, eboluzioak inguru berrietara moldatzera eraman gaitu. Gorputz-adar sendoak garatu ditugu, gure pisua jasateko ahalmenarekin, eta zakatzak birika bihurtu ziren arnasa hartzeko. Puntu honetara helduta espezie bakoitzak bere beharren arabera berezitu da, baina talde txiki batek atzerako pausoak bete zituen itsasorako bueltatzeko.

Zetazeo baten morfologia arretaz begiratzen badugu, beraiekin partekatzen ditugun hainbat ezaugarri ikusi ditzakegu: arnasa hartzeko birikak, odol beroko zirkulazio sistema, hezurduraren egitura, etab.



## Los mamíferos que regresaron al mar...

Desde la conquista de la tierra por los primeros seres vivos, provenientes del océano, la evolución nos ha llevado a adaptarnos a nuevos medios. Desarrollamos fuertes extremidades, capaces de soportar nuestro peso, y las branquias se convirtieron en pulmones para poder respirar. Llegados a este punto cada especie se especializó según sus necesidades, pero hubo un pequeño grupo que volvió a conquistar el mar.

Si observamos con detenimiento la morfología de un cetáceo veremos los rasgos comunes que compartimos con ellos: pulmones para respirar, sistema de circulación de sangre caliente, composición del esqueleto, etc.

## Misticetos y odontocetos

Existen dos grandes grupos que dividen a estos animales en dos sub-órdenes, los cetáceos barbados (misticetos) y los dentados (odontocetos).

Los primeros poseen barbas o "ballenas" en su boca, y las utilizan para filtrar el alimento que capturan. Son, por regla general, los cetáceos de mayor tamaño, incluyendo al animal más grande del mundo, la ballena azul (*Balaenoptera musculus*). Otra de las características de los misticetos es que poseen un doble espiráculo (orificio por donde respiran).

Por el contrario, los odontocetos poseen dientes, ya que son cazadores. Se incluyen hasta 8 familias diferentes, y un gran número de

Zetazeoen hegatzen hezurdurak esku baten egitura mantentzen dute.

Las aletas de los cetáceos conservan una estructura ósea comparable a la de una mano.

## Mistizeto eta odontozetoak

Bi talde handi daude animalia hauek bi sub-orden ezberdinan banatzen dituztenak, zetazeo bizardunak (mistizetoak) eta hortzduak (odontozetoak).

Lehendabizikoek bizarrak edo "baleak" dituzte ahoan, harrapaten duten elikagaia iragazteko erabiltzen dituztenak. Orokorean, tamaina handieneko zetazeoak dira, izan ere mundu osoko animaliarik handiena talde honetan kokatzen da, bale urdina (*Balaenoptera musculus*) hain zuzen ere. Beste bereizgarri bat, duten espirakulu bikoitza da (arnasa hartzeko duten zuloa).


Beste aldetik, odontozetoek hortzak dituzte, ehiztariak baitira. 8 familia bereizten dira, espezie ezberdin askok osatzen dituztenak. Bereizgarriak dira sub-orden honetan espirakulu bakarra eta meloia, eko-lokalizaziorako erabiltzen duten zentzumen organoa.

## Zetazeoak gure uretan

Baleak, kaxaloteak edo izurdeak aipatzen ditugunean dokumentaletan grabaturiko irudiak datozkigu burura, ziurrenik hemendik urrun filmatutakoak. Baino gure kostaldetik gertu ugaztun hauentzat benetako oasisa dena aurkitu dezakegu.

### Capbreton Itsas-fosa

Euskal kostaldetik 30-40 kilometrotara itsasamildegi handi bat topatzen dugu, 4.000 metroko sakontasuna eta 150 km-ko luzera duena, zetazeoak ikuskatzea errazten duena. Puntu egokiak dira euren migrazioentzako eta elikagaia bilatzeko. Txibia erraldoiak adibidez, kaxalote eta beste hainbat odontozetoen harrapakin direnak, sakonera handiko ur hauetan bizi dira.



Bale baten espirakulu bikoitza. Bi zuloak nabarmen bereizten dira.

Doble espiráculo de una ballena. Los dos agujeros se diferencian claramente.

especies diferentes. Son significativos de este sub-orden el espiráculo único y el melón, órgano sensorial utilizado para la eco-localización.

## Cetáceos en nuestras aguas

Cuando hablamos de ballenas, cachalotes, o delfines, nos vienen a la cabeza las imágenes rodadas en documentales, probablemente grabados en lugares lejanos. Pero cerca de nuestra costa encontramos un auténtico oasis para muchos de estos mamíferos marinos.

### Fosa de Capbreton

A unos 30-40 kilómetros de la costa vasca se sitúa una gran sima, de hasta 4.000 metros de profundidad y 150 km de largo, lo que hace que el avistamiento de cetáceos sea más sencillo. Son puntos propicios para sus migraciones y la búsqueda de alimento. Los grandes calamares por ejemplo, alimento principal de cachalotes y otros odontocetos, habitan en estas profundas aguas.

Capbreton-go Fosaren sakontasuna adierazten duen 3D irudia.

Imagen 3D de la Fosa de Capbreton indicando su profundidad.

# Miztizetoak: zetazeoa bizardunak

## Misticetos: cetáceos con barbas

Talde honetan bale eta zere bizardun guztiak sartzen dira, hortzak ordezkatuz garatu dituztenak. Gure uretan ohikoenak hurrengokoak dira:

### Zereak

Bi espezies azpimarragarriak dira Bizkaiko Golkoan, zere txikia (*Balaenoptera acutorostrata*) eta zere arrunta (*Balaenoptera physalus*). Biak oso antzekoak dira morfológicamente, elkarren artean bereizteko saila delarik.

Zere txikia, 10 metroko luzera duenak, zere arrunta baino laburragoa da, 20 metroak gainditu ahal dituenak. Kontutan hartzeko bereizgarritasuna da, nahiz eta azaleratik iksita erabakigarría ez izan. Izen ere, zere txiki bat eta zere arrunt gazzete bat erraz nahastu ditzakegu. Uretan sartuko bagina benetan okertezina den ezaugarría ikus genezake, bular-hegatsetan duten banda zuria hain zuzen ere.

Zere arrutak ezaugarrí berezi bat dauka, izan ere bailauren eskuineko aldean orban zuri bat erakusten du. Oraindik onartuak ez dauden hainbat teoria existitzen dira asimetria hau azaltzeko. Zabalduena animaliak bira egiteko eta jausiak burutzeko duen joerarena da, beti eskuin aldea.

### Xibartak

Bale konkordun ere deituak, azalean dituen protuberancias en la piel, alcanzan los 16 metros de longitud. Son de complexión robusta, y poseen largas aletas pectorales. Estas siempre son de color blanco en su parte inferior (en muchas ocasiones la superior también), y son uno de los rasgos distintivos en los que se fijan los investigadores para distinguir los individuos.



azterkosta monografikoak/monográficos azterkosta

Se incluye en este grupo a todas las ballenas y rorcuales, que han desarrollado sus barbas substituyendo a los dientes. Las más comunes en nuestras aguas son las siguientes:

### Rorcuales

Destacamos dos especies en el Golfo de Vizcaya, el rorcual aliblanco (*Balaenoptera acutorostrata*) y el rorcual común (*Balaenoptera physalus*). Ambos son muy similares morfológicamente, por lo que son difíciles de distinguir entre sí.

El rorcual aliblanco, de hasta 10 metros, es de menor tamaño que el rorcual común, que supera los 20 metros. Aunque es una de las características a tener en cuenta, desde superficie no es determinante, ya que puede confundirse con un individuo joven del común. Si nos sumergiéramos veríamos el rasgo más identificativo de este rorcual, su banda blanca en las aletas pectorales.

El rorcual común posee una peculiaridad, muestra una mancha blanca en el lado derecho de su mandíbula. Existen varias teorías sobre el porqué de esta asimetría. La más extendida está relacionada con la tendencia del animal a girar siempre sobre su costado derecho al nadar y al realizar saltos.



Zere arrunta / Rorcual común

### Yubartas

También llamadas ballenas jorobadas, por las protuberancias de su piel, alcanzan los 16 metros de longitud. Son de complejión robusta, y poseen largas aletas pectorales. Estas siempre son de color blanco en su parte inferior (en muchas ocasiones la superior también), y son uno de los rasgos distintivos en los que se fijan los investigadores para distinguir los individuos.

Xibarta / Yubarta

# Odontozetoak: horzdun zetazeoak

## Odontocetos: cetáceos con dientes

Odontozetoak bereizten dituen ezaugarri nagusia benetako hortzak dituztela da, eta orokorrean mistizetoak (bizardun zetazeoak) baino tamaina txikiagoa dutela. Guztiaik dira ehitzariak, eta hortzak harrapakinak heltzeko erabiltzen dituzte. Gure uretan ondorengo espezieak azpimarra ditzakegu:

### Mazopa (*Phocoena phocoena*)

Bizkaiko Golkoan aurkitu dezakegung zeta-zeorik txikiena da, metro t'erdia eta 2 metro arteko luzerarekin, eta 80 kg-ak kasu gutxitan gainditzen dituena. Ipar hemisferioko kostal-deetan kokatzen da populazioa eta europan aurkitu dezakegung mazopa espezie bakarra da.

### Izurdeak

Hiru dira gure uretan ohikoak diren espezieak; izurde arrunta (*Delphinus delphis*), izurde marraduna (*Stenella coeruleoalba*) eta izurde handia (*Tursiops truncatus*).

Lehendabiziko biak maizago ikusten dira gure ingurutan. Tamaina antzekoa dute, 2 metroko luzera gutxigaitik gaindituz. Elkaren artea gorputzaren bi aldeetan dituzten marrengekit bereizi ditzakegu. Izurde arruntaren kasuan hori kolorea dute marrek, izurde marradunaren kasuan berriz, gris-urdinxka kolorekoak dira.

Izurde handia, mundu mailan ikasi eta ezaguena, ez ohikoena da ordea gure inguruan. Hala ere, euskal kostaldera gehien hurbiltzen dena da, izurde arrunta-rekin batera. Horrek izurde handia-rekin harreman estuagoak izatera eraman gaitu. Adibide garbia dugu Kontxako Badiako biztanle bihurtu zen "Pakito" famatua.



Pakito

La principal cualidad que distingue a los odontocetos es que poseen dientes verdaderos, y por lo general son de menor tamaño que los misticetos (cetáceos con barbas). Todos ellos son cazadores, y utilizan sus dientes para atrapar a sus presas. En nuestras aguas podríamos destacar las siguientes especies:

### Marsopa común (*Phocoena phocoena*)


Es el cetáceo más pequeño que podemos encontrar en el Golfo de Vizcaya, ya que oscila entre 1,5 y 2 metros de longitud, y rara vez supera los 80 kg de peso. Se distribuye por las zonas costeras del hemisferio norte y es la única marsopa presente en Europa.

### Delfines

Tres son las especies más frecuentes en nuestras aguas: el delfín común (*Delphinus delphis*), el delfín listado (*Stenella coeruleoalba*) y el delfín mular (*Tursiops truncatus*).

Los dos primeros son los más habituales y fáciles de observar. Tienen tamaños similares, sobrepasando por poco los 2 metros de longitud. Se pueden diferenciar entre sí por las bandas dibujadas en sus flancos, ya que las del delfín común se caracterizan por su tono amarillento, mientras que las del listado son de color gris-azulado.

El delfín mular, el más estudiado y conocido a nivel mundial, es sin embargo el menos habitual de los tres. No obstante, y junto al delfín común, es la especie que más se acerca a la costa, lo que nos ha servido para identificar mejor y familiarizarnos más con esta especie. El famoso "Pakito" es un claro ejemplo, convirtiéndose en residente habitual de la bahía de la Concha.



azterkosta monografikoak/monográficos azterkosta

## Bidaia-lagunak

Izurdeen aztura bat, guztioik ezaguna, itsasontziekin batera bidaiatzea da. Distantzia luzeak egiten dituzte itsasoan ontziem aldamean, batez ere aurrealdean, salto luzeak eginez. Jolasten ari direla pentsa genezake, dibertitzeako helburuarekin soilik, baina hori baino askoz gehiago da. Itsasontziaren brankak sortzen duen zurrubiloa aprobetxatzat abiadura handian igeri egin dezakete izurdeek, ia esfortzurik gabe. Jauziekin gainera, uraren marruskaduraz liratzen dira, ur-azpian baino azkarrago aurrera eginez.

## Izurde muturmotza eta pilotu-izurde hegaluzea

Ez dira benetako izurdeak, ezta genero berdinakoak ere, nahiz eta oso antzekoak izan. Ez daukate muturrik, eta meloiaren garapena nabarmena da benetan, eko-kokapenerako erabiltzen duten organoa. Bien arteko ezberdintasun garbiena kolorean, tamainan eta portaera sozialean datza.

Izurde muturmotzak (*Grampus griseus*) kolore grisa eta izurde handi baten tamaina dauka (3 m inguru). Bere bizkar-hegatsa altua da gorputzarekin alderatuz, eta azpiko barailan soilik ditu hortzak.



Izurde muturmotzek orbainak izan ohi dituzte, euren harrapakin diren txibia handiekin dituzten borroken ondorio.

Los calderones grises suelen mostrar cicatrices, producidas en la lucha con los calamares de los que se alimenta.

## Compañeros de viaje

Un hábito de los delfines por todos conocido, es el de acompañar a los barcos durante largas distancias en el mar, casi siempre encabezando la embarcación y realizando largos saltos. Podríamos creer que se trata de un comportamiento juguetón o de simple entretenimiento, pero es mucho más que eso. Aprovechando la turbulencia de agua que levanta la proa del barco, los delfines consiguen nadar a gran velocidad casi sin esfuerzo, y con los saltos se liberan del rozamiento del agua, avanzando de esta manera más rápido que bajo la superficie.

## Calderón gris y calderón común

Se les ha acuñado el nombre de calderón a ambos por sus similitudes morfológicas, pero no corresponden al mismo género. La ausencia de hocico es muy característica, al igual que el desarrollado melón, órgano sensorial que utilizan para la eco-localización. Las diferencias más claras residen en el color, tamaño y comportamiento social.

El calderón gris (*Grampus griseus*) tiene una coloración grisácea y posee el tamaño de un delfín mular (3 metros aproximadamente). Su aleta dorsal es alta en relación a su cuerpo, y únicamente posee dientes en la mandíbula inferior.

Por el contrario, el calderón común (*Globicephala melas*), es de un color negro azabache, y llega a alcanzar los 6,5 metros de longitud. Forman grandes grupos con una fuerte cohesión, de hasta 60-80 individuos. Quizá esto explique los varamientos masivos que sufren en ocasiones.

## Zifio de Cuvier (*Ziphius cavirostris*)

Se trata de una especie de la familia de los zifios, unos de los cetáceos menos conocidos. A pesar de ello es bastante común en el Golfo de Vizcaya. Puede llegar a los 7 metros de longitud, y presenta una coloración muy



Lehorratze masibo baten irudia.  
Escena de un varamiento masivo.

Bestetik, pilotu-izurde hegaluzeak (*Globicephala melas*) kolore beltz-beltza dauka, eta 6,5 metro luze izatera heldu daiteke. Talde handiak osatzen dituzte, 60-80 lagunekoak, harreman sozial estuekin. Agian horrek azaldu lezake batzuetan sufritzen dituzten lehorrente masiboak.

## Cuvier moko-balea (*Ziphius cavirostris*)

Moko-baleen (edo zifioen) familiakoa, zetazeo ezezagunetarikoa dugu. Hala ere nahiko ugaria da Bizkaiko Golkoan. Zazpi metroko luzera izan dezake, oso kolore gama ezberdiniekin: grisetasik hasita, marroi tonu ezberdinetara. Aipagarria da duen bizkar-hegats txikia, animalaren tamainarekin konparatuz.

## Kaxalotea (*Physeter macrocephalus*)

Odontozetorik handiena da, 15 metroak eta 50 tonak gaindituz. Buru erraldoia dauka, bertan gantz erreserba garrantzitsuena duela. Horrek baleontziengatik desio bihurtu zuen kaxalotea.

Txibia erraldoiak dira bere oinarrizko elikagaia, ur oso sakonetan bizi direnak. Honek, kaxaloteen begiztaketa errazten ditu Capbreton ozeano-fosa inguruaren, bertan jateko bilatzen baitute. Egiten dituzten murgialdiak 1.500 metroko sakoneraino heltzen dira, muturreko kasuetan ordu t'erdiko iraupenarekin.

## Noizbehinkako begiztatzeak

Batzuetan, beste hainbat zetazeo espezie ikusi ditzakegu gure inguruan, nahiz eta euskal uretan ohikoak ez izan. Sowerby moko-balea (*Mesoplodon bidens*) eta izurde albozuriaren (*Lagenorhynchus acutus*) kasuak dira, atlantiar ozeanoko iparraldean berezkoak direnak; edo pilotu-izurde tropikal (*Globicephala macrorhynchus*), ur epelagoetan arruntagoa.

Bada beste odontozeto bat munduko ozeano guztietan topa dezakéguna, nahiz eta Bizkaiko Golkoan noizbehinka bakarrik ikusi. Orkaren kasua da hau (*Orcinus orca*), izurdeen familiako espezierik handiena.

variable, desde grises pálidos hasta marrones de distintas tonalidades. Cabe destacar su pequeña aleta dorsal en proporción al tamaño del animal.

## Cachalote (*Physeter macrocephalus*)

Es el mayor de los odontocetos, sobrepasando los 15 metros de longitud y 50 toneladas de peso. Posee una inmensa cabeza, donde acumula grandes cantidades de grasa, lo que le convirtió en presa deseada para los barcos balleneros.

Se alimenta básicamente de grandes cetáceos como los calamares, presentes en aguas muy profundas. Este hecho propicia el avistamiento de cachalotes en aguas cercanas a la fosa de Capbreton, lugar donde buscan alimento mediante inmersiones que pueden llegar a los 1.500 metros de profundidad, y de hasta una hora y media de duración en los casos más extremos.



Kaxalotea

Cachalote

## Avistamientos puntuales

En ocasiones se llegan a avistar otras especies de cetáceos que, aun no siendo las más habituales en nuestras aguas, nos visitan con cierta asiduidad. Es el caso del zifio de sowerby (*Mesoplodon bidens*) y del delfín de flancos blancos (*Lagenorhynchus acutus*), especies propias del atlántico norte; o el calderón tropical (*Globicephala macrorhynchus*), común en aguas más templadas.

Existe otro odontoceto, presente en todos los océanos del mundo, que tampoco se comporta como residente en el Golfo de Vizcaya. Es el caso de la orca (*Orcinus orca*), la especie de mayor tamaño de la familia de los delfinidos.

# Balearen ehiza: historia eta ohitura

## Caza de la ballena: historia y tradición

Euskal kostaldeko herriek erlazio oso estua daukate balearen ehizarekin. 760 urtean jada jarduten ziren euskal arrantzaleek aktibitate honetan. XIV eta XV mendeetan izan zuen ehizak bere momenturik gorena, nahiz eta ohikoa izan XVIII mende amaiera-arte.

Bale franko glaziarra (*Eubalaena glacialis*) zen euskal bale-arrantzaleen harrapakin ohikoena, izan ere espezie hau “Bale Euskalduna” ezizenarekin ezagutzen da. Bale honek bazuen abantaila nabarmen bat, behin hilda ur gainean geratzen baitzen, gainontzeko espezieak hondoratzentz zirelarik. Ezaugarri hau izan zen bere desagerpenaren ondorio Kantauri itsasoan, arrantzale euskaldunez gain beste batzuk etorri baitziren, holandarrak, britainiarraak eta alemaniarrak besteari beste.

### Nola ehizatzen ziren baleak?

Kostaldeko talaia eta labarretan igota, zelatariek itsasora begira mantentzen ziren baleen esperoan. Behin bale bat antzematen zutenean, gertu zegoen portura ematen zitzaiotz abisua. Bertatik hainbat txalupa ateratzen ziren, arpoi, soka eta baita dinamitarekin ere (aktibitate honen azken urteetan). Harrapatutako balea txalupetara lotzen zuten, porturaino eramanez.

### Zer gertatu da Euskal Balearekin?

Bale franko glaziarra Kantauri itsasotik ia desagerrarazia izan zen. Gaur egun Europa eta Amerika iparraldean elkartzen dira espezie honetako bale gehienak.

Neguan ikusi ohi zen Bizkaiko Golkoan, iparraldeko ur hotzetatik ihes egiten baitzuten kumeak erditzezko.

### Aztarna gaur egun

Balearen ehiza antzinako kontua da jada, baina ondare ezabaezina utzi du gure kultura eta ohituretan.

Bale frankoa kumearekin  
Ballena franca con su cría

Los pueblos costeros de Euskadi poseen una fuerte relación unida a la caza de la ballena. Esta actividad, de la que se tiene constancia entre los pescadores vascos ya en el año 760, tuvo su punto álgido durante los siglos XIV y XV, aunque la caza fue habitual hasta finales del siglo XVIII.

La ballena franca glaciar (*Eubalaena glacialis*) era la presa común de los balleneros, tanto es así que fue renombrada como “Ballena de los Vascos”. La principal ventaja que suponía esta especie era que, una vez muerta flotaba en el agua, al contrario de otras ballenas cuyos cuerpos se hundían. Esta cualidad fue la detonadora de su desaparición en el Cantábrico, ya que flotas holandesas, británicas y alemanas se unieron a los balleneros vascos en su caza.

### ¿Cómo se cazaban las ballenas?

Subidos en atalayas o acantilados costeros, los vigías oteaban el mar esperando el paso de las ballenas. Una vez avistada alguna, se daba aviso al puerto más cercano, del que partían diferentes botes cargados de arpones, cuerdas e incluso dinamita (en los últimos años de esta actividad). La ballena atrapada era atada a varios botes y arrastrada hasta puerto.



Hasteko, Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldeko hainbat herriren bereizgarri edo armarietan arreta jarri genezake. Balearen irudia oso arrunta da, izan ere ekonomia eragile garrantzitsuena izan zen arrantzarekin batera. Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Getaria edo Zarautzko armarietan, besteak beste, balearen figura agertzen da. Kasu askotan ehizaren irudi argiak ere.

Beste aldetik, estropadak moduko kirola (trainera), arrantza-txalupen erabilera dute jatorria. Balearen arrantzaren kasuan, txalupen arteko lehia sutsua zen benetan, bai portu bereko, bai portu ezberdineko ontzien artean. Balea zegoen lekura lehendabiziko postuan heltzeak garrantzia zuen, animalia arpoiairekin lehenengo jotzen zuenak pribilegioak izango baitzituen ondoren partekatu beharko ziren irabazietan.

Herriko jaiet balearen ehiza oroinmenean dute oraindik. Honen adibide garbia Orion ospatzen den "Balearen Eguna" da, 1901ean gure arrantzaleek harrapatu zuten azkeneko balearen ohorean.



MILA BEDERATZIEHUN  
DA LEHENENGO URTEAN  
MAIATZAREN HAMALAU  
GARREN EGUNIAN  
ORIOKO HERRIKO  
BARRAREN AURRIAN,  
BALIA AGERTU ZAN  
BEATZIK ALDIAN...

## ¿Qué ha sido de la Ballena de los Vascos?

La ballena franca glacial fue prácticamente extinguida en el mar Cantábrico. Hoy en día se concentra en mayor número al norte de Europa y América.

En invierno es cuando más probabilidad había de observarla en el Golfo de Vizcaya, ya que huía de las gélidas aguas del norte para dar a luz a sus crías.

## Huella en la actualidad

La caza de la ballena ya es cosa del pasado, pero ha dejado una herencia imborrable en nuestra cultura y costumbres.

Para empezar, podríamos fijarnos en los distintivos o escudos de muchas poblaciones costeras de Bizkaia y Gipuzkoa. La figura de la ballena es algo habitual, pues no en vano supuso, junto a la pesca, la primera actividad y principal motor económico. Pueblos como Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Getaria o Zarautz, entre otros, cuentan con el dibujo de una ballena en sus escudos, incluso con escenas explícitas de su caza.

Por otro lado, deportes como el remo (traineras), derivan del uso de botes en la pesca. En el caso de los botes balleneros, la competencia con otras embarcaciones era feroz, bien fueran del mismo u otro puerto. La importancia de llegar primero hasta la ballena residía en que el primero en arponear al animal tendría privilegios en el posterior reparto de las ganancias.

Las fiestas populares guardan también la caza de la ballena en su recuerdo. Ejemplo de ello es el "Día de la Ballena" que se celebra en Orio, en conmemoración del último ejemplar atrapado por nuestros balleneros, en 1901.



azterkosta monografikoak/monográficos azterkosta



# Behaketa eta ikerketa

## Observación y estudio

Zetazeoak ikusteko modu ezberdinak daude gure inguruan, nahiz eta batzuetan ez garen konturatzeten. Bai lehorretik (sailagoa den arren), bai ontziatan irteerak eginez, animalia hauek gertuagotik ezagutzeko aukera daukagu.

### Behaketak lehorretik

Antzinako bale-zelatariek egiten zuten moduan, gomendagarria da itsaso gaineko talaia edota itsaslabarretan kokatzea. Prismatiko batzuen laguntza ezinbestekoarekin, baleek

Existen diferentes formas de poder avistar cetáceos en nuestro entorno, aunque a veces lo desconozcamos. Bien desde tierra (aunque más difícil) o en salidas en embarcaciones, tenemos la posibilidad de conocer más de cerca a estos animales.

### Avistamientos desde tierra

Tal y como hacían los antiguos avistadores de ballenas, es conveniente situarse en atalayas o en lo alto de un acantilado sobre el mar. Con



Matxitxako lurmuturra leku paregabea da zetazeoak lehorretik behatzeko, itsasoan gehien barneratzen den lur-puntua baita.

El cabo de Matxitxako es un lugar propicio para avistar cetáceos desde tierra, ya que es el punto terrestre más adentrado en el mar.

eta kaxaloteek azaleratzean jaurtitzen duten aire zorrotada ikus dezakegu. Espezia zorrotadaren tamaina eta irteteko formari esker bereizi genezake.

## Irteerak ontzieta

Zetazoen ingurura gehien gerturatzeko modua ontzi batean igotzea da. Kostaldean, zorte pixka batekin, izurdeak ikus ditzakegu ontzienguruan, baina benetan kalderoiak, zereak edota kaxaloteak ikusteko probabilitateak igotzeko milia batzuk egin beharko genitzuke itsasoan barrena, Capbreton Fosaraino.

## AMBAR eta EIBE elkartea

AMBAR (Asociación para el estudio y la conservación de la fauna marina) eta EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte) irabazi-asmorik gabeko elkarteeik, Bizkaiko Golkoko zetazoen ezagutza eta kontsebazioa bermatzeko ikerketa eta ekintzak sustatzen dituzte.

Hainbat proiektu aurrera daramatzate, gehienbat ikusketa eta lehorreratze kanpainak, eta hezkuntza eta dibulgazio programak oinarri dituztela.

la indispensable ayuda de unos prismáticos podremos distinguir el chorro de aire que expulsan las ballenas y cachalotes cuando salen a superficie, diferenciando la especie por el tamaño y forma de salir de éste.



## Salidas en barco

La forma de acercarse lo más posible a los cetáceos es subirse a una embarcación. Desde la costa, con un poco de suerte, ya se pueden observar delfines que acompañan a los barcos, pero cuando aumentan realmente las probabilidades de toparnos con calderones, rorcuales o incluso cachalotes, es a varias millas mar adentro, sobre los límites de la fosa de Capbreton.

## Asociaciones AMBAR y EIBE

AMBAR (Asociación para el estudio y la conservación de la fauna marina) y EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte) son dos asociaciones que, sin ánimo de lucro, realizan estudios y promociona actividades dirigidas principalmente al mejor conocimiento y conservación de los cetáceos en el Golfo de Vizcaya.

Cuentan con varios proyectos, que se sustentan principalmente en redes y campañas de avistamientos, varamientos y programas de educación y divulgación.



**902 160 138**  
**aztertu@ej-gv.es**  
**www.euskadi.net/aztertu**

